



WORLD FEDERATION OF TRADE UNIONS

Class oriented - uniting - democratic - modern - independent - internationalist!

2013, abuztuak 1

PENTSIODUN ETA ERRETIRATUEN MUNDUKO SINDIKATU FEDERAZIOKO NAZIOARTEKO SINDIKATUEN BILTZARRAREN ERAKETA BATZARRA. BARTZELONA, ESPAINIA, 2014, OTSAILAK 5-6.

DEIALDIA

Lagun:

Munduko Sindikatu Federazioak eta Pentsiodun eta Erretiratuen Sindikatu Zentral Bateratuak, SZB (PetaE), gonbidatzaile gisa, zure antolamendua gonbidatzen dute parte har dezan Pentsiodun eta Erretiratuen Sindikatuen Nazioarteko Batasuna sortzeko biltzarrean, Bartzelonan egingo dena (Espainia), 2014ko otsailaren 5 eta 6an (nazioarteko laburdura BCN duen aireportura, hots, EL PRAT BARCELONARA helduera otsailaren 4an, asteartearekin, eta irteera otsailaren 7an, ostiralarekin), horren bitartez sortu eta era dadin Munduko Sindikatu Federazioko Pentsiodun eta Erretiratu Sindikatuen Nazioarteko Batasuna (SNB). Mundu osoko pentsiodun eta erretiratuen klaseko sindikatuak elkartu eta koordinatuko dituen MSF-ko SNB-a sortzeko aukera hau Munduko Sindikatuen 16. Biltzarrak erabakitako ebazpenen esparruan kokatu behar dugu, klaseko sindikatuen mugimendua gorantz hartzen ari den ibilbidearen erakusgarri garbi gisa, eta MSF-aren ibilbide baikorra azpimarratzen du.

Gaur egun, erabide kapitalistaren krisi sakon baten aldiari bizitzen ari gara. Kapitala eta gobernu kapitalistek krisiaren pisu osoa langileengan eta herriarengan zamatu nahi dute, eta horrek, jakina, eragin negargarria du alor guztietako langile ororentzat, eta baita pentsiodun eta erretiratuentzat ere. Pentsiodun eta erretiratuak gure pentsioak eta eskubideak nola murrizten ari diren ikusten ari gara, gure bizitza eta gure alaba eta semeena gero eta okerrago dagoela egiaztatzen ari gara. Mundu osoko pentsiodun eta erretiratuek MSFaren ezaugarri den langileen nazioartekotasuna baliatu behar dugu gure jardunean eta borroka egin bizitza duina egiten ahalbidetuko digun pentsio publikoaren eskubidea errealitate bihurtzeko planetako toki guztietan. Borroka egin behar dugu osasun zerbitzua eta azpiegiturak eta doako botikak eduki ditzagun, gizarte segurantzaren publiko eta doako baten alde, pentsioak publikoak eta duinak izan daitezzen.

Bere partaidetza baieztatzen duen elkarte edo antolamendu bakoitzak Biltzarrean parte hartzeko xehetasunak bilduko dituen bere gai zerrenda jasoko du. Nazioarte mailan gisa honetako ekimenetan egin ohi den bezala, partaide bakoitzak bere hegazkin txartelak ordainduko ditu.

40, ZAN MOREAS STREET, ATHENS 11745 GREECE

TEL. (+30) 2109214417, (+30) 2109236700, FAX (+30) 210 9214517

www.wftucentral.org E-MAILS : info@wftucentral.org, international@wftucentral.org



WORLD FEDERATION OF TRADE UNIONS

Class oriented - uniting - democratic - modern – independent – internationalist!

Partaide baten ostatua (1) eta hiru egunetako mantenua (3) antolatzaileen konturakoa izango da. Ordezkarri gehigarriak onartuko dira bere gain hartzen baldin badute Bartzelonako hiru eguneko egonaldiari dagokion gastu osoa. Bizi dugun krisi ekonomikoa dela-eta, elkartasun gisa, Bartzelonako bere egonaldia bere eskutik ordaintzeko ahalmena duten partaideei erregu egiten zaie hala egin dezatela. Prestakuntza Batzordeak diru-ekarpen osagarria eskatzea erabaki zuen Biltzarraren diru-bideei laguntza eman ahal izateko. Laguntza hori ordezkarri bakoitzak emango du diru-bide ahalmena aintzakotzat izango duen baremo baten arabera.

Espanian sartzeko bisa edo iragan-agiria behar duten ordezkariek bere izen-deiturak eta sindikatuko kargua aditzera eman behar digute, beranduen ere 2013ko iraila amaitu baino lehen, Espainiatik SBB-ak (PetaE) bidal diezaien izen-deiturez gonbidapen agiri egokia.

Lagunak, gonbitea egiten dizuegu parte har dezazuen PetaJ-en SNB-a eratzeko biltzarrean, eta zuen partaidetzaz eta proposamenez laguntza eman diezaguzuen denen artean biltzarra arrakastaz amaitzen.

Parte hartzeko zuen eskakizunak bidal ditzakezue ondoko helbide elektronikoetara: quimboix@quimboix.es, info@wftucentral.org

Adeitsu,



George Mavrikos
MSF-ko idazkari nagusia



Quim Boix i Lluch
Peta J-en MSF-SNB-ko
Buruzagitza Batzordeko kide,

40, ZAN MOREAS STREET, ATHENS 11745 GREECE

TEL. (+30) 2109214417, (+30) 2109236700, FAX (+30) 210 9214517

www.wftucentral.org E-MAILS : info@wftucentral.org, international@wftucentral.org